

Derioko Udalaren 2026-0444 Alkatetza Dekretuaren laburpena, 2026ko uztailaren 28koa, Derioko udalerriko elkarteek antolatutako jardueretan edalontzi berrerabilgarriak erabiltzeko laguntzak norgehiagoka bidez emateko deialdia onartzen duena.

BDNS (Identif.):

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa. Onuradunak:

Dirulaguntza hauen onuradunak izan daitezke legez eratuta eta Derioko elkarten udal-erregistroan inskribatuta dauden elkarteak, entitateak eta kolektiboak, baldin eta kulturari, kirolari, gizarteari, jaiei edo komunitateari lotutako ekintzak garatzen badituzte.

Bigarrena. Helburua:

Deialdi honen helburua udalerriko elkarteek antolatutako jardueretan edalontzi berrerabilgarriak erabiltzeko dirulaguntzak ematea da, erabilera bakarreko plastikoen erabilera murrizteko, hiri-garbiketa hobetzeko eta herritarrak sentsibilizatzeko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak:

Derioko Web orrialdean: www.derio.eus

Laugarrena. Zenbatekoa:

5.000€

Diru-laguntzaren zenbatekoa benetan justifikatutako gastuaren %100 izango da aurrekontu-partida bakoitzean esleitutako kredituaren mugaraino. Eskatera gehiegi egoteagatik aurrekontu-kreditua ez bada nahikoa %100 hori estaltzeko, onuradun bakoitzak benetan justifikatutako gastuaren ehuneko bera jasotzeko moduan banatuko da kreditu hori

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea:

Eskaerak aurkezteko epea deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta

hurrengo egunean hasiko da, hau da, 2026ko irailaren 6an.izango da.

Derio, 2026ko uztailaren 30a

Alkatea, Esther Apraiz